



Azpeitiko Udala

OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, AZPEITIKO UDALEKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: Udalbatzak bi mila eta hogeita hiruko otsailaren 7an, hitzez hitz jasorik honako hau dioen erabakia hartu zuela:

“AZPEITIA, EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2023-2026” ONARTZEA.

Euskararen Erabilpena Arauzkotezko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak hizkuntza eskubide batzuk aitortzen dizkie herritarrei eta betebeharrak ezartzen dizkie administrazioei, hizkuntza eskubide horiek bete eta berma ditzaten. Xedea da hizkuntza eskubide horien erabateko bermerantz aurrera egitea eta euskara gure bizitzako eremu eta une guztietan erabili ahal izatea ahalbidetzea.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa den apirilaren 7ko 2/2006 Legeak egiteko eta jardun-arlo batzuk ezartzen dizkie Udalei, hala nola hizkuntza politika eta euskara sustatzea. Hizkuntza bizikidetza gero eta orekatuagoa eraikitzen lagundu nahi duen hizkuntza politika; euskararen erabilera gero eta eremu gehiagotan sustatuko duena, lankidetza oinarri hartuta, bai euskararen esparruko eragileekin, bai gainerako hizkuntza gutxituek dituzten eragile askotarikoekin. Horri lotuta, Azpeitiko Euskararen Plan Estrategikoaren misioa da euskararen egoeraz kontziente den eta hizkuntzak herriko bizikidetza eraikitzeke erabiltzen dituen herria izatea Azpeitia, betiere euskara ardatz (erdigune) duela. Euskaraz sortuko duen eta euskaraz bizi den herri izatea eta hitun kontzienteak dituen.

Zer lortu nahi da Azpeitia euskaldunarentzat?

Azpeitiko herritarren %83 euskalduna (euskaraz daki) da. Hori horrela, egoera soziolinguistiko osasuntsuan dagoen ikuspegitik baina alde berean hainbat arrisku eta erronka garrantzitsu dituen begiradatik landu nahi dugu plan hau. Hau da, hizkuntzaren bitartez elkarbizitza eraikitzen jarraitzeko tresna moduan erabiltzen duen herria izan nahi du Azpeitiak. Horretarako ezinbestekoa da hizkuntzaren kontzientzia hartzea eta honek herri eta herritarren harreman sareak eraikitzeke duen gaitasunaz jabetzea.

Udalbatzari aurkeztu zaion plana herritarren harreman sareetara eta herri dinamikara egongo da zuzenduta. Planak 5 elementu ditu oinarri: baliabideak, pertsonak, informazio fluxuak, erabaki guneak eta neurriak.

Jarraipen gunea Euskararen Mahaia izango da. Askotariko eragilez osatutako organo honek izango du planaren gidaritza. Hala ere, plan honetako ekintzak Euskara Batzordean aztertu eta proposatuko dira.

Erronka nagusiak alor honetan gobernantza partekatuaren eredian antolaturiko gune parte hartzailea sortzea da, herritarrek euskararen, Azpeitiko eta Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoaren eta hizkuntza ohituren kontzientzia hartzea, eta euskara Azpeitiko bizikidetzarako muina izatea/bilakatzea da. Erronka

hauek lortzeko lan ildo ezberdinak jorratuko dira, eta urtez urteko ekintzak bideratuko dira, eta urtez urte kudeaketa plan bat ere egingo da.

Bere aldetik Eneritz Albizu Lisazo zinegotziak jakinarazi du planaren aurkezpena egin dela, eta bertan adierazi zen bezala eragile askorekin eman den parte-hartze prozesu baten ondorioz formulatu den plana dela. Planaren jarraipena egingo duen Euskararen Mahaiak iadanik lehen bilera egin du eta 2023. ekitaldirako ekintza plana osatzeko lanean hasi dela ere gaineratu du.

Eta kontuan izanik Kultura, Euskara eta Parte Hartze Batzorde berriemaileak gaia izapidetu duela, Udalbatza Osoko kideek aho batez, eta beti ere legezko kopuruaren gehiengoarekin ONARTU DU:

1.- AZPEITIA, EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2013-2016 dokumentua.

2.- Plan Estrategiko hau Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko da.

Eta horrela jaso gera dadin eta, alkate udalburuaren oniritziarekin ziurtagiri hau eman dut, Azpeitian, bi mila hogeita hiruko otsailaren hogeita lauean.

O.E.
ALKATEA,

